

# Adituak

**E**makumeak ikusgai Twitter kontuak (@ikusgaitasuna) honelako txioak publikatzen ditu astero: “Gaur ere ez dago emakumerik @Boulevardeitb-eko elkarrizketetan”.

Kataluniako #Onsonlesdones-en lanari jarraituz, EHUko Ikus-entzunezko eta Publizitate Saileko irakasle eta ikertzaile talde honek sare sozialak erabiltzen ditu euskal hedabideetan emakumeen parte-hartze eskasa salatzen.

Hedabideen Azterketa Globala ikerketaren arabera, Espainiako komunikabideetan aditu gisa agertzen diren pertsonen %9 soilik dira emakumezkoak. Datu hori egonkor mantendu da azkenengo bi txostenetan: 2010ean eta 2015ean. Joera orokorra dirudi, beraz.

Kazetarietara portzentaje hori aipatu diedanean, denek onartu dute kostata lortzen dutela elkarrizketa edo kolaborazio baterako prest dagoen emakumerik aurkitzea. Askok aitzakia doinuarekin esan didate: “Tira, nik ezin dut ezer egin emakumeak animatzen ez badira”.

Ahalduntze falta, duda barik, presentzia urri horren osagai garrantzitsua da. Iruzurtiaren sindromea aipatzen du Silvia Nanclaresek eldiario.es-en argitaratutako *Las niñas de la primera fila* artikuluan. Esparru publikoan parte hartzen dugunean, emakumeok maiz ez dugula merezi sentitzen dugu, alegia. Arrazoia? Patriarkatuan autoritatea maskulinitatearekin lotzen delako.

Emakume askok segurtasun falta hori aitortu didate (“Ez dut uste nire iritzia interesgarria denik”, “Ez naiz prestatuta sentitzen”...), baina beste askok hedabideak espazio arrotzak eta bortitzak direla esan didate. Ni ere, kazetari izanda, bat nator.

Azken urteotan jaso ditudan hiru gonbit laburtuko dizkizuet:

1. ETBko goizeko magazina, abortuaren inguruan apezpiku batekin eztabaiatu nezan. Ni ez banintzen animatzen,



June Fernández

KAZETARIA  
@marikazetari

Gizonak lekua uzteko prest al zaudete? Hedabideetan maiz parte hartzen duzuenok, noizbait gonbit bati uko egin eta emakumezko kide bat gomendatu al duzue? Clásicas y Modernas kultur elkarteak *Emakume barik, ez manifestuan gizonen hauxe eskatu die: emakumeak baztertzen dituzten ekimenetan parte-hartzeari uko egin*

beste feministaren bat gomendatzea eskatu zidaten. Ezetz esan nuen eta ez nuen boluntariorik topatu.

2. La Sextako albistegiak, udal batek erailketa matxista baten inguruko komunikatu kaxkar bat hedatu zuelako, nire erreakzioaren bila. Ordubete barru etorriko ziren, minutu bateko deklarazio bat eman nezan. Arduragabea iruditu zitzaidan *boteprontoan* eta bi hitzetan ezagutzen ez nuen instituzio baten jokabidea epaitzea.

3. La Tuerka telebistako gizonetako aurkezle batek deitu ninduen, Fidel Castroren heriotzari buruzko saio batean hitz egin nezan. Ni ezagutu gabe, hauxe esan zidan: “Beitu, bihotza, ez dut mahai-inguruan parte hartu nahi duen emakumerik aurkitu eta gutxienez zure telefonoz sartzeari nahiko nuke”. Baietz esan nuen, baina txiki-txiki sentitu nintzen.

“Jabetu zaitezte, neskak!”, esan ordez, emakumeon parte-hartzea benetan sustatu nahi badugu, hedabideen dinamika patriarkalak ezbaian jarri behar ditugu. Edozein gairi buruz (TTIP, Siriako gerra, homeopatia) iritzi kategorikoak ematea exijitzen duen tertulia formatua egokia al da? Nori ematen diogu adituaren estatusa? Zer egin dezakegu kazetariok elkarrizketatua edo tertulia-kidea eroso sentitu dadin? Zer egiten dugu emakume batek gure hedabidean agertzeagatik komentario edo eraso sexistak jasaten dituenean?

Eta gizonak lekua uzteko prest al zaudete? Hedabideetan maiz parte hartzen duzuenok, noizbait gonbit bati uko egin eta emakumezko kide bat gomendatu al duzue? Clásicas y Modernas kultur elkarteak *Emakume barik, ez manifestuan gizonen hauxe eskatu die: emakumeak baztertzen dituzten ekimenetan parte-hartzeari uko egin*.

Imajina ezazue *Boulevard*-eko tertulia-kideek bide horri jarraituko baliote. Gehiegi eskatzea ote? ■